

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



## Jenio gaiztoa

Pello Añorga,  
Jokin Mitxelena

AIZKORRI

36 orrialde

5, 75 euro

Lola itsasoari  
desafioka

Haur txikia da Lola, Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak marraztutako *Jenio gaiztoa* liburuko protagonista. Bost urte baino gehiagoko umeentzat idatzitako kontakizun honetan larunbat batean gurasoekin hondartzara joan zenean neskatarik gertatutakoa azaltzen da. Itsaso bizia zegoen, eta gurasoek, badaezpada, Lolari kontuz ibiltzeko esan zioten, itsasoak jenio gaiztoa zeukala egun horretan. Lolak entzun bai, baina ez zien sinetsi. Oso garbi zeukan jenio gaiztoa zeukaten bakarrak gurasoak zirela. Itsasoari desafioka hasi zen beraz: “ezetz harrapatu!”. Orain harri bat bota

uretara; hurrengoan, makiltxo bat... Olatua gerturatzten zenean, han zihoan lasterka gure neskatala. Baina halako batean, olatu handi batek harrapatu zuen. ■

Harreman-estilo  
berri bat

Koldo Saratzaga

ELKAR

228 orrialde

21 euro

Enpresak pertsonetan  
oinarritzearen beharraz

Koldo Saratzaga larri egon diren enpresei irabaziak izaten lagundu dien profesionala da. Aurretik beste esperientzia batzuk izan arren, 1984az geroztik kooperatiba munduan murgilduta dabil –Etorki-n, Lankide Aurrezkian, Urolako zuzendari nagusi lanetan, edo Irizar-eko proiektuaren koordinatzaile nagusi modura, baita Irizar Group-eko presidente gisa ere—. Ez da nekatzen esateaz enpresak pertsonetan oinarrituz antolatu behar direla, haien sormenean, parte hartzean eta inplikazioan funts hartuz, hori delako enpresak organizatzeko modurik eraginkorrena. Eta ideia horretan eta hainbat enpresatan izan duen eskarmentuan oinarrituta *Harreman-estilo berri bat. Egiteko dagoen organizazioen aldaketarako* liburua idatzi du. ■

Ipuinak  
Hitzaaren eskutik

Lea-Artibai eta Mutrikuko *Hitza* kaleratutako *Ametsetarako hitzak* izena duen liburuak, eskualde horretako hamar idazleren eta hiru marrazkilariren lanak bildu ditu. Beatriz Anitua Zabaletak, Kaiet Bengoetxea Urkitzak eta Bittor Txakartegi Etxebarriak egindako marrazkiekin batera, jarraian agertzen diren idazleek sortutako lanak daude irakurgai: Yolanda Arrietaren *Abazturaren kondaira*; Leire Bilbaoren *Ez nago euliei begira*; Jon Elordiren *Negarrik gabeko lurra*; Ana Urkizaren *Zita amarekin*; Miren Agur Meaberen *Sorgina eta udazkena*; Joxemari Urteagaren *Kirikinoaren sekretua*; Yolanda Larreategiren *Maddik ikusezina izan nahi du*; Karmele Jaioren *Mingainik jaten ez zuen katua*; Kirmen Uriberen *Gure tximist*; eta Txili Lauzurikaren *Izurde ttipia eta bere lagunak*. ■

Ametsetarako  
hitzak


Batzuen artean

LEA-ARTIBAI ETA  
MUTRIKUKUKO HITZA

104 orrialde

Hezkuntza  
ikerlanak Tantaken

Euskal Herriko Unibertsitateko *Tantak* aldizkariaren azkeneko zenbakian hainbat ikerlan plaza-ratu dituzte gizakiak bere ahalmenak garatuz gizartean bizitzera prestatzeko erabiltzen dituen bideei buruz. Ikertutako gaien artean, esate baterako, ea eskole-tako gazteentzat hizkuntzak ikas-tea zigorra den; Euskal Autono-mi Erkidegoan adimen urritasuna zuten ikasleekin egin-dako lehen hezkuntza esperien-tziek nolako bilakaera historikoa izan zuten; bazterturiko kolore-hitzen artean, osasuntsuak zeintzuk diren. Hezkuntza aldizka-rian kaleratu diren gainontzeko lanen artean daude, besteak beste, honakoak: soinuak eta iru-diak emozioen pertzepzioan duten eragina aztertzen duena; Interneten erabilera didakti-koa Euskal Herriko Unibertsitatean esplikatzen duena; edo bigarren hizkuntza ikasteko proposamenak egiten dituen. ■



## Tantak

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEKO  
HEZKUNTZA  
ALDIZKARIA

168 orrialde

10 euro



### Txantxetan ari zara, Tanner jauna

Jean-Paul Dubois

ALBERDANIA

170 orrialde

17 euro

## Etxe bat eraberritzeko lanen infernu umoretsua

Mikel Garmendiak euskaratu du Jean-Paul Dubois idazle frantziarraren *Txantxetan ari zara, Tanner jauna* nobela. Protagonistari bizitza zoratzerraino aldatuko dion jazoera gertatuko zaio. Osaba hil, eta oinordetzan haren etxe zahar bat egokitu. Esker minez edo, etxetzarra konpontzea erabakiko du, horretarako ordura arte bizileku izan duen etxebizitza saldu behar badu ere. Geroztik ez du lasaitasunerako momentu askorik izango. Izan ere, eraberritze lanak hasi ordurako ezagutuko dituen igeltsero, sabaigile edo argiketari guztiek bere bizitza hondatzeko

asmo tinkoa dutela ematen du. Bizitza infernu bilakatuko diote. ■

## Zazpi egun xaboi-burbuila baten bizitzan

Pako Sagarzazuk asmatutako *Punpuilaren bidaia* Joxan Ormazabalek euskaratu du. Istorioa animatzen duten irudiak, berriz, Iraia Okinari zor zaizkio. Neskato batek puzka egindako xaboi-burbuila da kontakizuneko protagonista. Leihotik kanpora ihes egin, eta bidaia ekin dio xaboi-burbuilatxoak. Hasi berritan, gelditu ere ez da egingo; baina gero, nekatu, eta atse-dena hartu beharko du. Baina bere arreta pizten duen ororen irudiak sabelean gordetzen dituenek, asko puzten da. ■

### Punpuilaren bidaia

Pako Sagarzazu

ELKAR

14 orrialde / 6,50 euro



PELLO OTXOTOKO VAQUERO

## «Maitasuna sentitzeko, igortzeko eta pairatzeko modu asko dago»

Poema liburu hau laburbiltzerik bai?

Maitasun liburua da. Ez dakit asmatu dudana ala ez, baina maitasuna ahalik eta ondoen deskribatzen saiatu naiz. Maitasunak betiere orbanak uzten ditu, higatzen ditu bihotzak, positiboki eta negatiboki. Horregatik, maitasuneko poema mota ezberdinak aurkituko ditu irakurleak *Goizalbaren argitan* liburuan. Nire asmorik garrantzitsuen maitasunaren poliedroaren alde anitzak aurkezteak izan da.

Eta zer da zuretzat maitasuna?

Onerako ala txarrerako, bihotza eta barruak erabat astintzen dituen emoziorik gogorrenetarikoa da maitasuna. Eta maitasuna aldatuz doa, barruak astintzeko gai diren emozioek beren eragina aldatzen duten neurri berean. Maitasuna sentitzeko, igortzeko eta pairatzeko modu ugari daudela adierazi nahi izan dut poema sorta honetan, maitasunaren alde ezberdinak azalduz.

Esate baterako, zein alde?

Adibidez, bikotekidearenganako —modu erromantikoa, sentsualean, edo nerabe garaikoan—; seme-alabenganako; gizateriarekiko; naturarekiko; eta balizko transzendentzia batenganakoa —heriotzari eskainitako poema bat ere badago, amorante bailitzan—. Guzti hau, modu pertsonalean, inpersonalean, baikorki eta ezkorki, era errealean zein platonikoan, eta baita fikziozko modu batean ere agertzen saiatu naiz.

Nola sortu zitzaizun liburua egiteko ideia?

Duela hiruzpalau urte erabaki nuen hitzaren bitartez emozioak igortzeko ahalegin hau islatzea.



ARGIA

## Pello Otxotekok amodioari eskainitako poemak

1999an Berminghan argitaletxean plazaratu zuen *Haraindiko begirada* izeneko poema

liburuarekin eman zen ezagutzera literatur munduan Pello Otxoteko Vaquero (Irun, 1970). Ahalegin hari jarraitu zioten 2001ean Hiria argitaletxearen bidez kaleratutako *Itzualaren ñabarduretan* eta 2003an Elkar-en agertutako *Arnasa galduaren ondarea* liburuek. Lan haietan, pentsamenduaren poesia jorratu zuen —batzuen esanetan, poesia metafisikoa edo filosofikoa baino ez zena— eta aldaketaren beharra sumatu zuen olerkariak bere baitan. Orduantxe erabaki zuen maitasunari eskainitako poema-liburu bat idaztea, hizkuntzaren maila emotiboak punturik gorenetara eramaten saiatuz. Poema gehienak bere bikotekideari eskainiak dira; beste batzuk, enamoratzeko momentuan sortzen diren galderen



### Goizalbaren argitan

Pello Otxotoko Vaquero

EREIN

100 orrialde

8,40 euro

eta kezken eraginez sentitutako emozioei irteera ematen diete; eta liburuen azken atalekoak —*Eta argiak pausagunea aurkitzen duenean...*— bere seme-alabei eskainiak. Azken garaian, Li Bai-ren antologia bat egon da itzultzen Pello Otxoteko —Alberts Galvanyarekin batera—, eta berak aitoritzen duenez, poeta txinatarren eragina suma daiteke *Goizalbaren argitan* honetan. ■

egileari galdezka